



5. modulua: Eskola gaitasunak eta curriculumak

DIZIPLINARTEKO LANAREN GIDA

Kontaidazu mundua aldatzeko ipuin bat

1. DALaren aurkezpena eta araudia	2
1.1. DALaren aurkezpena	2
1.2. DALaren araudia	2
1.3. Nork egin behar du DALa?	3
2. Gaitasunak eta Ikastearen emaitzak	4
2.1. Moduluaren Oinarrizko Gaitasunak	4
2.1.1. Berariazko gaitasunak	5
2.1.2. Ikaskuntza-emaitzak	5
3. Testuingurua	5
3.1. Garapen iraunkorrerako 2030 agenda:	5
3.2. Kontaidazu mundua hobetzeko ipuin bat	6
3.2.1. Agertokia:	6
3.2.2. Oinarrizko GIHak:	7
4. DAL-aren garapena	8
4.1. Lanaren faseak	8
4.1.1. Taldeak sortzea	8
4.1.2. Marko teorikoa: Ipuinaren aukeraketa eta justifikazioa	8
4.1.3. Proposamena eta honen justifikazioa	9
4.1.4. Lanaren kronograma	10
4.1.5. Tutoretal eta lanaren entregak (ordena kronologikoan)	12
4.2. Lanaren aurkezpena	13
5. DALaren ebaluazioa	14
5.1. Ebaluazioaren orokortasunak	14
5.2. Ebaluazioan kontuan hartzeko	14
5.2.1. Hizkuntza gaitasuna	14
5.2.2. Plagioa	14
5.3. Lanaren kontrol zerrenda	15
6. Bibliografia	18
7. Eranskinak	19
1. ERANSKINA: Lehen tutoretzarako. Liburu zerrenda eta behin behineko aukeraketa, prozeduraren hausnarketa.	19
1.1. Album ilustratuen zerrenda	19
1.2. Behin behineko album ilustratuen aukeraketa zerrenda	21
1.3. Beste taldeari bideratutako galderak	22
1.4. Galderen erantzunetatik ateratako hausnarketa	23
2. ERANSKINA: Hizkuntzaren Didaktikako saiorako. Ipuinaren aukeraketa eta justifikazioa (Marko teorikoa)	24
3. ERANSKINA: Garapen Psikomotorreko saiorako. Proposamen didaktikoaren diseinua	25
4. ERANSKINA: Arte Plastikoak saiorako. Proposamen didaktikoaren diseinua eta aurkezpena	26
5. ERANSKINA: Justifikaziorako autoebaluazio galderak	27
5.1. Modu egokian justifikatu da ipuinaren aukeraketa?	27
5.2. Idazkera akademikoa, informazio iturriak, aipamenak eta erreferentziak	27

1. DAL-aren aurkezpena eta araudia

1.1. DALaren aurkezpena

5. modulua (“Eskola gaitasunak eta curriculuma”) Haur Hezkuntzako Gradu 3. mailako lehen lauhilekoan egiten da.

Modulu honetan garatu beharreko Diziplinarteko Lanaren (DAL) izenburua **“Kontaidazu mundua aldatzeko ipuin bat”** da eta 1,8 kreditu balio ditu (10 asteko moduluaren egitura berezia dela eta). Lan honetan Haur Hezkuntzan ipuin edota album ilustratua¹ diziplinartekotasuna zein Garapen Iraunkorrerako Helburuak(GIH) aintzat hartuz nola landu daitekeen azaldu eta justifikatu behar da. Diziplinartekotasun hau

3. mailako lehen lauhilabeteetan lantzen diren ikasgaiak kontuan hartuz landu beharko da:

- Arte Plastikoak eta Ikusizko Kultura Haur Hezkuntzan II (6 kr.)
- Garapen Psikomotorra II (6 kr.)
- Hizkuntzaren Didaktika eta Atzerriko Hizkuntza (Hizkuntzaren Didaktikako modulua, 5 kr.)

Ikasleak DALa egiteko 45 lan ordu beharko ditu. Ikasgelan 18 ordu eskainiko zaizkio eta ikasgelatik kanpo 27 izango dira egin beharreko lan orduak. Lauhileko honetako ikasgai bakoitzak 6 ordu eskainiko dizkio, bere irakasgaiaren %10eko denbora. Ondorioz, DALaren kalifikazioa ikasgaiako kalifikazioaren %10a izango da². DALa egin behar ez duten ikasleen kasuan, aldiz, ikasgaiaren nota %100 izango da DALaren portzentairik gabe.

1.2. DALaren araudia

Haur Hezkuntzako curriculuma zehaztu, eta Euskal Autonomia Erkidegoan ikaskuntza horiek ezartzen dituen 2023ko maiatzaren 30eko 75/2023 dekretuaren 7. artikulua araberan (EHAA, 2023ko ekainaren 9koa), Haur Hezkuntzak haurren zenbait oinarrizko diziplina- konpetentzia garatzen lagunduko du:

- a) Norberaren gorputza eta besteena ezagutzea, baita harekin zer egin dezakeen jakitea ere, eta desberdintasunak errespetatzen ikastea.
- b) Bere ingurune familiarra, naturala eta soziala behatzea eta arakatzea.
- c) Bere ohiko jardueretan pixkanaka autonomia lortzea.
- d) Gaitasun emozionalak eta afektiboak garatzea eta haiek erregulatzen hastea.
- e) Besteekin harremanak berdintasunean izatea eta pixkanaka elkarbizitzarako eta gizarte-harremanetarako funtsezko jarraibideak eskuratzea, baita enpatia erabiltzen eta gatazkak era baketsuan eta batere indarkeriarik gabe konpontzen trebatzea ere.
- f) Komunikazio-trebetasunak garatzea zenbait hizkuntza eta adierazpidetan.
- g) Komunikazio-trebetasun linguistikoak garatzea bi hizkuntza ofizialetan, euskararen erabilera sustatuta.
- h) Trebetasun logiko-matematikoak, mugimenduak, keinuak eta erritmoak ikasten hastea eta irakurtzen

¹ Ipuinak edota album ilustratuak izango dira ikasleek proposamen didaktikoa diseinatzeko erabiliko dituzten baliabideak. Ipuinak egitura narratiboa duten testuak dira. Lan honetarako aukeratuko diren ipuinak ilustratuak izan beharko dira, irudiez lagunduta egongo dira. Proposamen didaktikoa aurrera eramateko album ilustratuak ere aukeratu daitezke. Hauetan ilustrazioak testuz lagunduta egon daitezke edo ez. Formatua edozein dela, haurrekin elkarrekintza sustatzen lagundu dezakeen baliabidea aukeratuko da.

² Hizkuntzaren Didaktika eta Atzerriko Hizkuntza irakasgaiaren kasuan, urteko irakasgaia denez, DALaren balioa lehenengo lauhilabeteetan lantzen den ikasgaiaren moduluari dagokion kalifikazioaren %10a izango da.

eta idazten hastea.

- i) Estereotipoak gainditzea eta pertsonen berdintasuna sustatzen duten arau sozialak sustatzea, aplikatzea eta garatzea.

Gaitasun horiek lantzeko, Haur Hezkuntzako haurrek eskola aldi bakoitzean ikasiko dituzten edukiak eta baliabideak eta gauzatuko dituzten jarduerak hautatu behar dira. Haur Hezkuntzako Graduko 3. mailan arreta berezia eskainiko diegu ikasleen prestakuntza integralerako oinarritzkoak diren **hezkuntza baliabideei**, horretarako 5. moduluko Diziplinarteko Lanean **“ipuinak”** landuko dira.

1.3. Nork egin behar du DALa?

Ikasle guztiek egin beharko dute DALa baldin eta 5. moduluko hiru ikasgaietan matrikulatuta badaude. Hurrengo egoeretan izan ezik:

- 5. Moduluko ikasgai batean edo bitan bakarrik matrikulatuta dauden ikasleak.
- Aldi berean bi modulu egin behar dituzten ikasleek (ikasgai batzuk baliozkotuta edo gainditu gabe dauzkatelako) ikasgai gehien egiteko dituzten moduluko DALa egin beharko dute soilik. Bi moduluetan egin beharreko ikasgai kopurua bera bada, goreneko mailako moduluan egingo dute DALa.
- Titulazioa modularra denez, eta lanak diziplina arteko edukia duenez, ikasleak **justifikatutako arrazoiengatik** jarraikako ebaluazio sisteman ezin badu parte hartu, DAL horrekin lotutako proposamena egin beharko du, idatziz eman eta ahoz defendatu, modulu bakoitzean horretarako zehaztuko den datan.
- Egoera horretan dauden ikasleak moduluko koordinatzailearekin (edo titulazioko koordinatzailearekin) jarri beharko dira harremanetan ahalik eta lasterren, eta horrek behar duten informazioa emango die, hala nola, lana entrega eta defentsa egiteko esleitu zaion irakaslea, zeinekin data eta tokia adostuko duen; irakasle hau ez da izango ikasle honen tutorea eta ikasleak dagokion arloko irakaslearengana jo beharko du zalantzak argitzeko.
- Zeintzuk lirateke jarraikako ebaluazio sisteman parte ez hartzeko justifikatuta dauden arrazoiak?
 - Lan-arrazoiak
 - Senideak beren kargura izatea
 - %33ko urritasuna edo hortik gorakoa
 - Maila altuko kirolaria izatea, bidaiak egitea edo dedikazio handia eskatzen duen jarduera artistiko edo kulturalen bat garatzea
 - Goi mailako beste ikasketa batzuekiko bateragarritasuna (kargu politiko, sindikal, elkarte edo GKEren bateko karguren batekiko bateragarritasuna edo bestelakoak)

Honen inguruan zalantzak izatekotan, jo ezazu “Moduluak. Oinarritzko galderak” dokumentura (<https://www.ehu.eus/documents/2955630/10132805/Moduloak+oinarrizko+galderak+20190416def.pdf>)

2. Gaitasunak eta Ikastearen emaitzak

2.1. Moduluaren Oinarrizko Gaitasunak

UPV/EHU-ko zeharkako gaitasunen katalogoan (2019)³ oinarrituz, Diziplina Arteko Lan honetan landuko diren zeharkako gaitasunak egoera edo zeregin konplexu honen aurrean ikasleek egin beharreko ekintzak bezala ulertzen dira. Katalogo horretako hainbat gaitasun landuko diren arren, ondoko bost hauetan jarriko dugu arreta berezia: pentsamendu kritikoa, berrikuntza, gizarte konpromisoa, komunikazioa eta talde lanean. (Ikusi 1. taula)

1. taula:

ZEHARKAKO KOMPETENTZIAK	IKASTEAREN EMAITZAK
Pentsamendu kritikoa PK05. Hainbat iturritik eskuratutako informazioa interpretatzen du, haren egokitasuna eta irismena ikuspegi kritiko batez baloratuta esleitutako GIHak aintzat hartuz.	-HHrako hautatutako etaparako egokiak diren zein GIHrekin lotura zuzena dituzten ipuinak identifikatu eta honen egokitasuna justifikatu du. -Hautaketaren argudiaketan, iturri bibliografiko zein ikuspegi pedagogiko kritiko batetik oinarritu da.
Berrikuntza BE11. Jakintza arlo batera transferitzen ditu beste arlo batzuetako berezko kontzeptuak eta prozedurak, behar diren aldaketak eta egokitzapenak eginez.	-Ikaslea gai da diziplinartekotasun ikuspegitik ipuinaren aukeraketa zein proposamen didaktikoa justifikatzeko. -Ikasgaien arteko loturak koherenteki burutzen ditu.
Gizarte Konpromisua GK10. Diziplinarteko proposamenak adierazten ditu giza garapen jasangarriari lotutako arazoei erantzuteko.	-Ipuinetik abiatuta, diziplinartekotasuna kontua hartzen duen proposamen didaktiko bat sortzeko gai da esleitutako GIH ardatz izanik.
Komunikazioa eta Eleaniztasuna KO06. Ideiak eta argudioak era ulergarrian adierazten ditu, ezarritako irizpide formalekin bat etorrita	-Ikasleak bere justifikazio zein proposameneko ideiak zuzentasunez eta koherentziaz adierazten ditu. -Lanean idazketa akademikoko irizpide formalak betetzen ditu.
Komunikazioa eta Eleaniztasuna KO08. Hitzeko eta ez-hitzeko adierazpena entzuleriari egokitzeko gai da, ahozko aurkezpen publiko batean.	-Aurkezpena ahots tonu eta erritmo egokian eramateko gai da. -Euren gorputz-jarrera kontrolatzen du, entzulegoari begiratzen dio. -Erabilitako baliabideak diskurtsoari laguntzen diote.
Talde Lana TL11-TL13. Bere gogoetak eta argudioak partekatzen ditu, taldeak egindako prozesuaren eta lortutako emaitzen baterako ebaluazioa egiteko. Beste talde batzuekin lankidetzan dihardu, proposamenen eraikuntzan.	-Bere lan-taldean zein beste lantalde bateko kideekin elkarlanean aritzeko eta ideiak partekatzeko gai da.

³ UPV/EHU, (2019). ZEHARKAKO GAITASUNEN KATALOGOA. Eskuragarri hemen: <https://www.ehu.eus/documents/1432750/12757375/Zeharkako+gaitasunen+katalogoa.pdf/>

Zeharkako gaitasunez gain, Diziplina Arteko Lan honetan 5. Moduluko jakintza arloko hainbat gaitasun ere landuko dira, aurkeztuko den arazo-egoerari modu integratuan erantzun ahal izateko. (Ikusi 2. taula)

2. taula:

BERARIAZKO GAITASUNAK	IKASKUNTZA EMAITZAK
<p>Arte Plastikoak</p> <p>BG1. Sormen-estrategiak erabiltzen dituzten arte-hezkuntzarako jarduerak identifikatzea. Haur Hezkuntzara egokitutako jarduera-proiektuak diseinatzea, curriculumaren ikerketa eguneratutik abiatuta.</p>	<p>-Haur Hezkuntzara bideratzen den artefaktu plastiko-bisualak egiteko gai da, zeinetan hausnarketa materiala eta estetikoaren bitartez bere ideiak praktikara eramateko gaitasuna erakusten duen.</p> <p>-Album ilustratua eraikitzen dituzten ezaugarri estetikoak eta egiturazkoak identifikatzen lortzea, eta hauek bere ekoizpenetan lantzeko gaitasun erakusten du.</p>
<p>Garapen Psikomotorra</p> <p>BG2. Haurraren jolasa beraren jarrera, balio eta arauen sortzaile bezala ulertu eta baliabide didaktiko moduan erabiltzea demokrazia eta erantzukizunerako. Etapako esperientzia arloetarako proposamen didaktikoak diseinatzea lotutako arazoen eta erronken gaineko gogoetak eginez, eta ikasleen hezkuntza beharrak, genero-berdintasuna, kultura-aniztasuna eta giza eskubideak aintzat hartuz.</p>	<p>-Ludikotasunean oinarritutako proposamenak sortzeko gai da, etapako ezaugarriak zein haurren garapen maila aintzat hartuz.</p> <p>-Ipuinen bidez konpetentzia motorra nola landu daitekeen aztertzen du, honen argudiaketa koherente baten bidez ikasgaiaren edukiekin lotuz.</p>
<p>Hizkuntza Didaktika</p> <p>BG3. Komunikazio gaitasun desberdinen garapena ahalbidetzeko baliabideak ezagutzea eta egoera zehatzetara behar bezala aplikatzea, komunikazio gaitasunen garapenaren esparruko helburu didaktikoen arabera.</p>	<p>-Jardueren aurkezpenerako metodologia hizkuntzaren lanketaren ikuskeratik agerian uzteko gai da:</p> <ul style="list-style-type: none"> · aurreikusitako emaitzak agertuaz · dinamikan aurrera egiteko estrategiak, aurreikusitako emaitzekiko egokiak direla · aukeratutako hezkuntza-ingururako egokituaz · indarrean dagoen curriculum dekretuaren araberrako loturak ere ezarriaz

3. Testuingurua

3.1. Garapen iraunkorrerako 2030 agenda⁴:

Agenda hau pertsonen, planetaren eta oparotasunaren aldeko ekintza-plana da. Helburu du, halaber, bake unibertuala sendotzea, askatasunaren kontzeptu zabalagoaren barruan. Badakigu pobreziaekin amaitzea, modu eta dimentsio guztietan, muturreko pobrezia barne, munduak duen erronkarik handiena dela eta ezinbestekoa dela garapen jasangarrirako. Helburuak eta erronkak integratuak eta banaezinak dira, eta garapen jasangarriaren hiru dimentsioak batzen dituzte: ekonomikoa, soziala eta ingurumenekoa. Helburuak eta erronkak izango dira datozen 15 urteotan gizateriarentzat eta planetarentzat garrantzi kritikoko esferetan ekintzak suspertuko dituztenak.

⁴ https://www.unescoetxea.org/dokumentuak/2030_Agenda_garapen_jasangarrirako.pdf

Pertsonak

Pobreziari eta goseari amaiera eman nahi zaie, modu eta dimentsio guztietan, eta gizaki orok bere ahalmena duintasunez eta berdintasunean eta ingurumen osasungarrian gauzatu ahal izatea bermatu nahi da.

Planeta

Planeta narriaduratik babestu nahi da, kontsumo eta ekoizpen jasangarriaren, natura-baliabideen kudeaketa jasangarriaren eta klima-aldaketari aurre egiteko premiazko neurrien bidez ere; horrela, egungo eta etorkizuneko beharrei erantzun ahalko zaie.

Oparotasuna

Gizaki orok bizitza oparoa eta osoa izan ahal izatea bermatu nahi da, eta bilakaera ekonomikoa, soziala eta teknologikoa naturarekin harmonian gertatu ahal izatea.

Bakea

Gizarte baketsuak, bidezkoak eta inklusiboak sustatuko dira, izurik eta indarkeriarik gabeko gizarteak. Ezin da garapen jasangarririk egon, bakerik gabe, ez eta bakea ere, garapen jasangarririk gabe.

3.2. Kontaidazu mundua hobetzeko ipuin bat

Ipuin batetik abiatuta GIHak lantzeko proposamen didaktikoaren diseinua sortzea eskatzen da modulu honetan. Horretan, hiru ikasgaien diziplinartekotasuna landuko da: Hizkuntzaren Didaktika, Garapen Psikomotorra eta Arte Plastikoak eta Ikusizko Kultura.

Garapen Iraunkorrerako Hezkuntza (GIH) Garapen Jasangarrirako Nazio Batuek proposatutako Helburuak lortzeko lanabes gakoa da. Hau jorratze aldera UNESCOren gidan (2017)⁵ GIH lantzeko oinarriko kompetentziak eta Garapen Jasangarrirako Helburu bakoitzarekin lotutako ikaskuntza emaitzak plazaratu ziren. Proposamen horretan oinarrituz Diziplina Arteko Lan honetan ipuin edota album ilustratuen erabilera pedagogikora egokitzen diren hainbat GIH aukeratu dira.

3.2.1. AGERTOKIA:

Gai al zara ipuinen bitartez garapen iraunkorra sustatzeko Haur Hezkuntzan?

Aurten eskola berri bat esleitu zaizu eta ikasturtea hasi aurretik, eskolara bertaratu zara gela eta materialak prestatzeko asmoz. Ipuinen apalategira hurbildu eta bertan aurkitu duzunarekin harrituta geratu zara ipuin guztiak zaharkituta, estereotipatuak eta hondatuak daudelako. Haur Hezkuntzako bigarren zikloan ipuinak duen garrantziaz jabetuta, zuzendaritzarengana jo duzu kezka hau partekatzerara. Zuzendariak eskolak jasangarritasunarekin lotutako proiektu berritzaile baten parte dela aipatu dizu eta, zorionez, diru partida bat dagoela material berria erosteko. Material berrien eskaera egiteko zenbait baldintza daude ordea:

⁵ UNESCO (2017). Educación para los Objetivos de Desarrollo Sostenible. Eskuragarri hemen: https://web.unican.es/unidades/igualdad/SiteAssets/guia-de-recursos/responsabilidad-social-universitaria/EdS_ODS.pdf

- GIHak lantzeko interesgarriak diren ipuin edota album ilustratuak izan behar dira eta hauetatik abiatuta proiektu didaktiko berritzaile bat sortu beharko duzu. Hizkuntzaren Didaktika, Garapen Psikomotorra eta Arte Plastiko eta Ikusizko Kultura ikasgaietan ikasitakoa erabiliko duzu esparru hauekin lotuta dauden HHko gaitasunak era integratuan lantzeko proposamena eginez.
- Esparru hauetako gaitasunak lantzeaz gain, proposamen didaktikoan landu beharreko derrigorrezko GIHak Osasuna eta Ongizatea, Kalitatezko Hezkuntza eta Hizkuntza eta Aniztasuna dira.
- Proposamenaren abiapuntua izango den ipuinaren gaiak, aurreko GIHak lantzeaz gain, 3. taulan azalduko diren GIH multzoetatik, bat landuko du.
- Proiektua osatzeko 10 aste dituzue eta amaitzean klaustroaren aurrean aurkeztuko duzue, proiektu honetan parte hartu duzuen lan taldeek.

3.2.2. OINARRIZKO GIHak⁶:

OSASUNA ETA ONGIZATEA (3. GIH)

Guztiantzat eta adin guztietan bizimodu osasungarria bermatzea eta ongizatea sustatzea.

KALITATEZKO HEZKUNTZA (4. GIH)

Guztiantzako kalitatezko hezkuntza inklusiboa nahiz bidezkoa bermatzea eta etengabeko ikaskuntzarako aukerak bultzatzea.

HIZKUNTZA ETA ANIZTASUNA (17+1 GIH)

Tokiko hizkuntzen integrazioa lortu hezkuntza sistemetan. Hizkuntza gutxiagotuen presentzia bermatu hedabide mota guztietan: idatzizkoak, ikus-entzunezkoak edota teknologia berrien alorrean garatutakoak.

>Album ilustratuen tematikak lantzeko, ikusi 3. taula

3. taula:

TEMATIKAK
<p><u>GENERO BERDINTASUNA (5. GIH)</u> Genero-berdintasuna lortzea eta emakume nahiz neskato guztiak ahalduntzea.</p>
<p><u>EKOIZPENA ETA KONTSUMO ARDURTSUA (12 GIH)</u> Kontsumo eta ekoizpen modalitate iraunkorrak bermatzea</p>
<p><u>URETAKO BIZITZA (14 GIH)</u> Ozeanoak, itsasoak eta itsas baliabideak mantentzea eta modu iraunkorrean erabiltzea garapen iraunkorrari begira.</p>

⁶ <https://www.bizkaiatalent.eus/eu/objetivos-desarrollo-sostenible/>

4. DAL-aren garapena

4.1. Lanaren faseak

4.1.1. TALDEAK SORTZEA

Lana egiteko ikastaldeak ikasleek eurek antolatuko dituzte eta koordinatzaileari jakinaraziko diote ikasturteko lehen astean. Taldeak osatzeko oinarrizko ikasle kopurua zein den jakinaraziko zaie. GA bakoitzak gehienez 6 talde izango ditu eta taldeak 5-7 lagunek osatuko dituzte. Taldeak eratzeko orduan, partaide bakoitzak rol zehatz bat hartu beharko du lana gainbegiratzeko:

1. Hizkuntzaren zuzentasuna, erreferentzien zuzentasuna eta egokitasuna eta dokumentuaren formatoaren arduraduna
2. GIH ikuspegiaren arduraduna
3. Diziplinarteko ikuspegiaren arduraduna
4. Hiru irakasgaien eta 75/2023 dekretuaren loturaren arteko arduraduna
5. Inklusio ikuspegiaren arduraduna

4.1.2. MARKO TEORIKOA: IPUINAREN AUKERAKETA ETA JUSTIFIKAZIOA

Haur Hezkuntzako haurrei zuzendutako album ilustratu bat bilatu, aukeratu eta justifikatu beharko da laneko lehen fase honetan. Aukeratutako ipuin edo album ilustratua paperezko bertsioan argitaratuta egon beharko da.

Proposamen didaktikoa garatzeko erabiliko den ipuina edo album ilustratua aukeratzeko prozesua era honetara egingo da: taldeko ikasle bakoitzak 5 album ilustratu aukeratu beharko ditu, gero ikastaldean erakutsi eta denen artean behin-betiko aukeraketa egingo da. Prozesu honen jarraipena egiteko **1. eranskinaren** lehenengo eta bigarren taulak beteko dira. Bilaketa egiteko liburutegiak (UPV/EHU, herri liburutegiak...) bisitatzea gomendatzen da.

Kideek aurkitutako liburuen artean, proposamena garatzeko erabiliko den ipuinaren egokitasuna justifikatzeko ikasleek Haur Hezkuntzako ikastetxe eta ikasgela jakin bat izango dute gogoan. Ipuin edo album ilustratuak Oinarrizko GIHak eta 3. taulako GIHetako bat lantzeko balio beharko du. Horrez gain, aukeraketa justifikatzeko lauhileko honetako ikasgaietan landutako gaitasunak eta edukiak kontuan hartuko dira, lanaren marko teorikoa osatuz.

Album ilustratua pentsamendu kritikoa eta GIHak lantzea ahalbidetzen duen material gisa ikusten da, eta honek eskaintzen dizkigun aukera anitzak kontuan hartuko dira bere aukeraketan eta justifikazioan. Proposamen didaktikoan ipuin osoa, ipuinaren zati bat, eszena bat edo ipuinaren beste edozein alderdi lantzeko aukera dago.

Txosten idatziaren lehen atalaren helburua, beraz, ipuin edo album ilustratuaren aukeraketaren justifikazioa izango da. Ondoko galdera gidari hauek lagungarriak izan daitezke justifikazioa egiteko. Gogoan izan atal honek ez duela galdera-erantzun formatoa izango, marko teorikoaren ohiko egitura formalari erantzungo dio.

- Zergatik landuko dugu album ilustratu hau? Zein ezaugarri ditu egoki bihurtzen dutenak?
- Zein beste album ilustratu baloratu ditugu eta zergatik utzi ditugu kanpoan?
- Zein da erabiltzearen helburua? Mezu edo ideia bereziren bat transmititzen al du?
- Zer ekarpen egiten du haurren garapenerako?

- Zer harreman egiten dugu album ilustratua eta GIH artean?
- Egokia al da moduluko hiru irakasgaiak lantzeko? Nola erlazionatzen da irakasgai bakoitzaren eduki espezifikoekin (hau da, klasean ematen den teoriarekin?)
- Zergatik uste dugu haurren adinarentzako egokia dela? Justifikatu
- Nola egokitzen da HHko ikastaldearen ezaugarrietara?
- Zein arazo egon daitezkeela aurreikusten dugu? Nola egingo diegu aurre arazo hauei?
- Lehen begi-kolpean, zein jarduera edo ekintza didaktiko mota bururatzen zaizkizue album ilustratu hau oinarri hartuta?

Aipua APA arauen 7. edizioa kontuan hartuz egingo dira.

4.1.3. PROPOSAMENA ETA HONEN JUSTIFIKAZIOA

Lanaren bigarren atalean aukeratutako album ilustratua erabiliz Haur Hezkuntzako ikasgela jakin batean aurrera eramateko proposamen didaktiko bat garatu beharko da, hiru ikasgaietan landutako kontzeptuak kontuan hartuta. Ipuina berritzailea izan nahi duen proposamenaren abiapuntua baino ez da izango, lanak eskaintzen dituen aukerak mugagabeak direlarik. Hala ere, taldeak ipuinarekin ikasgelan lan egiteko bere proposamena zehaztasunez azaldu eta justifikatu beharko du.

Proposamenaren diseinuak diziplinartekotasuna aintzat hartuko du. Aukeratutako ipuina, landu beharreko GIHak eta Haur Hezkuntza ikastaldearen ezaugarri zehatzak koherenteak izan behar dira. Argitasunez eta zehaztasunez adieraziko dira proposamenaren helburu nagusia (zer lortu nahi den), metodologia (nola egingo den, ze material edo baliabide erabiliko den, ikasleak nola taldekatuko diren...), ikasleen parte-hartzea sustatzeko moduak eta egindako aurrerapenak ebaluatzeko tresnak. Gainera, Haur Hezkuntzako haurren adin/ziklo desberdinetarako egin daitezkeen egokitzapenak hartu beharko dira kontuan. Hau da, beste irakasle batek proposamena irakurriko balu, gai izan beharko litzateke proposamena aurrera eramateko.

Orientabide moduan proposamen didaktikoak ondorengo informazioa jaso dezake:

- Haur-hezkuntzako ikasle taldearen ezaugarriak (hipotetikoak): adina, kopurua, testuingurua (ikastetxearen ezaugarriak...)
- Kronograma
- Jardueren sekuentzia
- Jardueren helburuak eta landuko diren konpetentziak
- Materialak
- Jardueren deskribapen zehatza
- Ebaluazioa
- Behar espezifikoak dituzten ikasleentzako egokitzapenak
- ...

Kontuan hartu, proposamena diziplinartekoa izan behar dela, eta **ezin direla ekintza edo jarduera isolatuak planteatu**, hau da, ikasgai bakarra lantzen duten jarduerak proposatu. Jarduera bakoitzak gutxienez 75/2023 Dekretuan agertzen diren hiru konpetentzia hauetatik bi landu beharko ditu: arterako konpetentzia, konpetentzia motorra eta hizkuntza- eta literatura komunikaziorako- konpetentzia, esleitutako GIHak lantzearekin batera.

Proposamen didaktikoak **gutxienez bost jarduera izango ditu**. Jardueren sekuentziak osotasun bat erakutsi behar du, eta hautatutako ipuina eta GIHeKiko koherentea izan beharko da.

Proposamen didaktikoaz gain, hau osatzen duten jarduera guztietan hiru ikasgaien erabilpena justifikatu behar da aipua egiteko APA arauen 7. edizioa (2021) erabiliz.

4.1.4. LANAREN KRONOGRAMA

Lauhilabete honen iraupen laburra dela eta, konturatzerako ebaluazio garaia heltzen da. Esperientziak erakusten digu hobe dela egunean eguneko lanak egitea eta hargatik, irakasle taldeak honako kronograma jarraitzea iradokitzen da.

Kronograma betetzea oso lagungarria da lana eguneratua eramateko eta azken momentuko arazorik ez izateko. Kontuan hartu tutoretzak eta entregak ebaluagarriak direla. Ikusi 4. taula.

4. taula:

ASTEAK	IKASLEAK EGITEKO	TUTORETZAK ETA ENTREGAK	IRAKASLEAK EGITEKO
1.	TALDEAK ERATZEA	Taldekatzeak eta taldeen izenak, azken aurkezpen egunean moduluko koordinatzaileari jakinaraziko zaio.	Irakasleak: Irakasgai bakoitzak 2 ordu eskeiniko dio DALaren aurkezpenari. Irakasgaien DALean kontutan hartu beharreko irizpideak eta edukiak azalduko ditu; eduki horiek album ilustratuaren aukeraketan kontuan hartuko direlarik Koordinatzaileak: >Tutoreen esleipena egin eta hauekin tutoretza egiteko eguna jakinarazi ikasleei.
2.	ALBUM ILUSTRATUEN BILAKETA	<u>1. TUTORETZA:</u> -Tutorearen talde guztiak elkartuko dira eta talde bakoitzaren 2-3 bozeramaileak etorriko dira (hauek tutoretza batetik bestera aldatukodira, talde partaide guztiak bozeramaileak izanarte). -Album ilustratuen aukeraketari buruzkoa izango da. -Egun horretarako talde bakoitzak 1. eranskina beteta eramango du , azken taula izan ezik.	Tutoretza taldeekin
3.	ALBUM ILUSTRATUEN AUKERAKETA ETA JUSTIFIKAZIOA		Hizkuntzaren didaktikan DAL 2 ordu: -1. DALen inguruko edukiak eta galderak erantzuteko (<i>lan intragrupala</i>). -2. taldeen artean beraien lanak azaltzeko tartea. Ausazko sailkapenean oinarrituta egingo dira taldea (<i>lan intergrupala</i>). -3. Beraien arteko elkarrizketaren osteko txostena beteko dute, zeinetan beste taldeetatik ikasitakoa adieraziko duten 2. eranskinean (<i>lan intragrupala</i>).

4.	ALBUM ILUSTRATUEN AUKERAKETA ETA JUSTIFIKAZIOA	<u>JARRAIPENA:</u> - Album ilustratuaren aukerakets eta justifikazioaren zirriborroa egin dutela eta 1. eta 2. eranskina bete dituztela frogatu. Zirriborro baten entrega eskatu daiteke, baina ez da ebaluatuko.	
5.	ALBUM ILUSTRATUEN AUKERAKETA ETA JUSTIFIKAZIOA / PROPOSAMEN DIDAKTIKOAREN DISEINUA	<u>2. TUTORETZA:</u> -Tutorearen talde guztiak elkartuko dira eta talde bakoitzaren 2-3 bozeramaileak etorriko dira (hauek tutoretza batetik bestera aldatuko dira, talde partaide guztiak bozeramaileak izan arte). -1. eta 2. eranskinak komentatuko dira. -Lanak behar dituen hobekuntzak azpimarratuko dira.	Garapen Psikomotorra DAL 2 ordu: -1. DALen inguruko edukiak eta galderak erantzuteko (lan intragrupala). -2. taldeen artean beraien lanak azaltzeko tarte. Ausazko sailkapenean oinarrituta egingo dira taldea (lan intergrupala). -3. Beraien arteko elkarrizketaren osteko txostena beteko dute, zeinetan beste taldeetatik ikasitakoa adieraziko duten 3. eranskinean (lan intragrupala).
6.	PROPOSAMEN DIDAKTIKOAREN DISEINUA	<u>1. ENTREGA:</u> -Album ilustratuaren aukeraketa eta justifikazioa zuzenduta -1., 2. eta 3. eranskina -Proposamen didaktikoaren zirriborroa, plastikako orduetan partekatatu ahal izateko irakasle eta klasekideekin.	
7.	PROPOSAMEN DIDAKTIKOAREN DISEINUA		Arte Plastikoak DAL 2 ordu: -1. DALen inguruko edukiak eta galderak erantzuteko (lan intragrupala). -2. taldeen artean beraien lanak azaltzeko tarte. Ausazko sailkapenean oinarrituta egingo dira taldea (lan intergrupala). -3. Beraien arteko elkarrizketaren osteko txostena beteko dute, zeinetan beste taldeetatik ikasitakoa adieraziko duten 4. eranskinean (lan intragrupala).
8.	PROPOSAMEN DIDAKTIKOAREN DISEINUA	<u>2. ENTREGA:</u> -Lehen atala guztiz zuzenduta eta proposamenaren behin betikodiseinua -4. eranskina	

9.	PROPOSAMEN DIDAKTIKOAREN DISEINUA ETA AURKEZPENA EGITEKO IDEIAK LANDU	3. TUTORETZA: -Tutorearen talde guztiak elkartuko dira eta talde bakoitzaren 2-3 bozeramaileak etorriko dira (hauek tutoretza batetik bestera aldatuko dira, talde partaide guztiak bozeramaileak izan arte) -Proposamen didaktikoaren diseinuaz eta lanaren aurkezpenaz hitz egingo da. -3. eta 4. eranskinak komentatuko dira -Lanak behar dituen hobekuntzak azpimarratuko dira -Aurkezpenaren inguruko ideiak eramango dira.	
10.	AURKEZPENA	-Lanaren behin betiko bertsioaren entrega. -Ahozko aurkezpena	Irakasgai bakoitzak 2 ordu eskeiniko dizkio DALaren aurkezpena. Ikasleek, taldeen aurkezpenak ikusiko dute eta aurreko saioen bileren ostean, feedback emango diete aurkezten duten taldeei, adibidez: talde horiek nola hobetu duten lana lehen asteetatik, zer ikasi duten beraien aurkezpenatik...

4.1.5. TUTORETZAK ETA LANAREN ENTREGAK (ORDENA KRONOLOGIKOAN)

Lana era egokian garatzen dela bermatzeko, hiru tutoretza saio egingo dira ebaluazioaldian zehar. Horiez gain, lanaren bitarteko 2 entrega egin beharko dira. Tutoretzak tutoreak dituen beste taldeekin batera egingo dira. Talde ezberdinen arteko eztabaida, eta elkarlana sustatzea da honen helburu nagusia, proposamen didaktikoa sortzeko ikasketa prozesua esanguratsua izan dadin.

Tutoretza saio guztietan, DAL talde bakoitzeko azpitalde bat izango da saio horretan egin beharreko lanaren arduraduna. Azpi talde hau 2 edo 3 kidekoa izango da, eta tokatzen zaion saioan parte-hartze aktiboa izango du (egin beharreko lanen jarraipena, bileran taldearen izenean hitz egitea...). Azpitaldeak saiotik saiora aldatuko dira. Helburua talde kide guztien parte-hartze aktiboa eragitea da, DALean inplikazio maila sustatuz.

1. tutoretzarako (2. astean):

Talde bakoitzak tutoretza baino egun bat arinago beste taldeekin partekatuko du beraien ipuin edota album ilustratuen zerranda osoa. Zerranda horretan liburu guztien artean zeintzuk diren bost finalistak adieraziko da eta finalistak izateko arrazoiak ere jasoko dira. Tutoretzan parte hartuko duten beste ikastaldeen zerrandak irakurri beharko dira tutoretza saiorako. **(1. eranskinaren 1. eta 2. taulak).**

- Ikastaldeen arteko eztabaida sustatzeko talde bakoitzak album ilustratuen inguruko bost galdera prestatuko ditu adibidez: *Zergatik aukeratu duzue? Zein harreman daukate ikasgaiekin? Zein harreman dute GIH-ekin?* **(1. eranskinaren 3. taula)**

Saio horren ostean talde bakoitzak **1. eranskinaren 4. taula** beteko du. Bertan, topaketa horretan gertatutakoaz eta, batez ere, beste taldeak egindako galderez hausnartu beharko da.

Ezinbestekoa da bai ipuinaren aukeraketa justifikatua, eta baita 1. eta 2. eranskinak tutoreari 4. asterako ematea.

2. tutoretzarako (5 astean):

Tutoretza saio honen helburua talde bakoitzak bere Album ilustratuaren aukeraketa eta justifikazioa partekatzea da. Horrez gain, talde bakoitzaren lanak behar dituen hobekuntzak azpimarratuko dira. Azkenik, **1. eta 2. eranskinetan** jasotakoari buruz elkarrizketa bat mantenduko da.

1. ENTREGA (6. astean):

Album ilustratuaren aukeraketa eta justifikazioa zuzenduta **3. eranskinarekin** batera. Honetaz gain, proposamen didaktikoaren diseinuaren zirriborroa egitea gomendatzen da, plastikako orduetan irakasle eta klasekideekin partekatu ahal izateko.

2. ENTREGA (8. astean):

Lehen atala guztiz zuzenduta eta proposamenaren behin betiko diseinua bidaliko da **4. eranskinarekin** batera.

3. tutoretzarako (9. astean):

Proposamen didaktikoaren diseinuaz eta lanaren aurkezpenaz hitz egingo da. Horrekin batera, **3. eta 4. eranskinetan jasotakoak partekatuko dira** dira eta lanak behar dituzten hobekuntzak azpimarratuko dira.

4.2 Lanaren aurkezpena

Lana bi modutan aurkeztu beharko da:

- Ahozko Aurkezpena: Talde handiko aurkezpena egingo da kurtsoaren azken astean. Honetarako ikasgai bakoitzetik 2 ordu (klase egun bat) hartuko da. Beraz, talde bakoitzak 30 minutu inguru izango ditu bera lanaren aurkezpena egiteko. Hemen ipuina, ipuinaren aukeraketaren justifikazioa, proposamena eta honen justifikazioa azaldu beharko da. 10-15 minutu lanaren aurkezpen formala egiteko eta 20-15 minutu jarduerak (bat edo bi) klasekideekin aurrera eramateko. Azkenik, taldean hartutako rolaren balorazio txiki bat egitea eskatuko zaie banaka, ikasitakoak eta izandako zailtasunak azalduz.
- Idatzizko txostena: Talde handiko aurkezpena egiten den egunean bertan aurkeztu beharko da. Txosten horrek gehienez 20 orrialde izango ditu eranskinak kontuan hartu gabe. Lanak ondoko atalak izan beharko ditu:

Ipuinaren aukeraketa eta justifikazioa (marko teorikoa).

Proposamen didaktikoa eta justifikazioa.

Taldeko azken hausnarketa. Hausnarketan horretan kontuan hartuko dira prozesuan emandako urratsak:

Egindako tutoretzak

Taldekatzak

Partekatze momentuak...

Lanak azala, aurkibidea eta erreferentzien zerrenda (APA 7. edizioa, 2021) izan

beharko du. Horrez gain, eranskinetan taldeko bileren aktak ere jaso beharko dira ikastaldeak egoki iruditzen zaizkien bestelako dokumentuez gain.

5. DAL-AREN EBALUAZIOA

5.1 Ebaluazioaren orokortasunak

Modulu honetan, DALari dagokion balioa berdina izango da irakasgai guztietan, hau da, %10a irakasgai bakoitzaren kalifikazioan. DAL horren kalifikazioa ezohiko deialdira arte gordeko da (ekaina-uztaila). DALa suspenditzen duen ikasleak DAL horrekin erlacionatutako proposamena egin beharko du, idatziz eman eta ahoz defendatu, modulu bakoitzean horretarako zehaztuko den datan (ez-ohiko deidiaren barruan).

Ikasgaiaren arabera, DALa gainditzea ezinbesteko baldintza da ikasgaia ere gainditzeko. Egoera hau ezagutzeko, begira ezazu ikasgai bakoitzaren programa edo gida.

DALaren ebaluazioa jarraitua izango da eta modu honetan egingo da:

- Txosten idatziaren balorazioa (%50)
- Klase aurrean egiten den aurkezpenaren balorazioa (%25)
- Klasean eta tutoretza saioetan parte hartze aktiboa (%25)
 - Klasean eta tutoretzetan beraien lana argudiatzeko gai da.
 - Prozesuan zehar talde lanarekiko konpromezua erakutsi du

DALaren ebaluazio ez jarraia aukeratzen duten ikasleen ebaluazioa, aldiz, era honetara egingo da:

- Txosten idatziaren balorazioa (%50)
- Klase aurrean egiten den aurkezpenaren balorazioa (%50) Talde hauen lana zuzenduko duen irakaslea azken astean esleituko da.

5.2 Ebaluazioan kontuan hartzeko

5.2.1 HIZKUNTZA GAITASUNA

Hizkuntzaren erabilera zuzena ezinbestekoa da. Adierazpide linguistiko zuzena eskatuko da eta akatsak oso nabariak direnean, edo testua ulergaitza denean – beste hizkuntzetatik itzultzeagatik edo hizkuntzaren adierazpide okerra erabiltzeagatik–, lana ez da zuzenduko, ikasleak edo taldeak lana zuzen egin arte. Aspektu hauek hartuko dira kontuan:

- Koherentzia, kohesioa, egokitasuna eta zuzentasuna.
- Diskurtsoaren ulergarritasuna.
- Hiztegia eta ortografia.
- Ergatiboa eta komunztadura.

5.2.2 PLAGIOA

Ezin da beste batek egindako obraren kopia edo imitazioa aurkeztu, norberak egina balitz bezala. Ikasleek aipamen arauak (APA arauak, 7. Edizioa, 2021) ezagutu eta erabili beharko dituzte. Plagioa egin dela susmatzen bada, txosten osoa baztertuko da eta DAL ez da gaindituko deialdi horretan.

5.3 Lanaren kontrol zerrenda:

Adierazleak	BAI	EZ	OHARRAK	EHUNekoAK
JUSTIFIKAZIOA				30
Aukeratutako ipuinen egokitasuna landu beharreko GIHakontuan hartuta justifikatu da.				
Diziplinartekotasun ikuspegitik ipuinaren aukeraketajustificatu da: -Irudi (errepresentazioa mailan) estereotipatuak ez dituzten liburuen aukeraketa egin da -Aukeratutako ipuinak edo album ilustratuak elementu paratestual esanguratsuak ditu istorioarekiko (formatua, aurreko eta atzeko azalak, tipografiak, trokelak, tolesdurak, guardak, prozedura grafikoa, POP-UP) -Haurrak bere motrizitatea lantzeko aukera ematen du -Ipuinean mugimendua agertzen da eta mugimenduak hitz teknikoegokiekin identifikatzen dituzte haurren gorputz eskema lantzen laguntzeko -Ipuinetik abiatuta hizkuntza arloan landu daitezken edukiak identifikatu dira				
Ikastaldearen ezaugarriak zehaztu dira				
Hautaketaren argudiaketa iturri bibliografiko zein ikuspegipedagogiko kritikotik oinarritu da.				
PROPOSAMEN DIDAKTIKOA				40
Bost jarduera edo gehiago ditu				

Jardueren helburuak eta landuko diren konpetentziak adierazita daude. -Jarduera bakoitzean landutako konpetentziak interbentzioa egingo den ikastaldeko umeei egokituta daude -Landuko diren konpetentziak klasean emandako teoriarekin oinarri kurrikularra dute.				
Jarduera bakoitzak bi konpetentzia edo gehiago lantzen ditu GIH ardatz izanik.				
Giza garapen jasangarriari lotutako arazoei erantzuteko diziplinarteko proposamena diseinatu da - Errepresentazio mota desberdinak bilatzen/sortzen dira - Prozedura grafiko anitzen erabilera sustatzen da, prozeduragrafiko askotarikoak erabiltzearen aldekoak izanez - Elementu paratestualetatik abiatzen da istorioa barneratzeko - Konpetentzia motorra lantzen da proposamenean eta ludikoa da. Hizkuntzaren lanketaren ikuspegia agerian uzten da: aurreikusitakoemaitzak adieraziz, aukeratutako hezkuntza-ingururako dinamikan aurrera egiteko estrategia egokiak definituz				
Jardueraren deskribapenak zehatzak dira - Ikasleei emango zaizkien argibideak zehaztu dira - Jarduera aurrera eramateko egingo diren galderak diseinatu dira - Erabiliko diren materialak identifikatu dira - Ikasleak taldekatzeko modua adierazi da				
Proposamenaren ebaluaziorako tresnak, irizpideak eta lorpenadierazleak zehaztu dira				
TALDEKO AZKEN HAUSNARKETA				15

Lana garatzeko egindako ibilbideren gaineko hausnarketa egin da: <ul style="list-style-type: none"> - Egindako tutoretzak - Taldekatzeak - Partekatze momentuak - Indarguneak - Ahuleziak... 				
FORMATOA				15
Ikasleek bere justifikazio zein proposameneko ideiak zuzentasunez eta koherentziaz adierazten dituzte. Lanean idazketa akademikoko irizpide formalak betetzen dira.				
APA 7 arauak era egokian erabili dira				

Irakasleak ikasleak banaka ebaluatuko ditu atal honetan (talde partaide beste errepikatu taula hau):

AHOZKO AURKEZPENA				
Bere lan-taldean zein beste lantalde bateko kideekin elkarlanean aritzeko eta ideiak partekatze gai da.				
Aurkezpena ahots tonu eta erritmo egokian eramateko gai da.				
Euren gorputz-jarrera kontrolatzen du, entzulegoari begiratzen dio.				
Erabilitako baliabideak diskurtsoari laguntzen diote <ul style="list-style-type: none"> - aurkezpena estetika eta forma aldetik zainduta dago - ipuinaren alderdi estetikoarekin bat egiten duen aurkezpena egin da 				

6 BIBLIOGRAFIA

Behinola aldizkaria.

Blake, Q., Eccleshare, J. (2010). *1001 libros infantiles que hay que leer antes de crecer*. Grijalbo.

Bryant, S. (1993). *El arte de contar cuentos*. Nova Terra.

Colomer, T. (2010). *Introducción a la literatura infantil y juvenil actual*. Síntesis.

Consejo Pano, Elena (2014). El discurso peritextual en el libro ilustrado infantil y juvenil. *Álabe* 10. DOI 10.15645/Alabe.2014.10.6

Díaz, F. (2007). *Leer y mirar el libro álbum: ¿Un género en construcción?* Norma.

Durán, T. (2002). *Leer antes de leer*. Anaya.

Durán, T. (2009). *Álbumes y otras lecturas*. Octaedro.

Galarraga, H., eta Alonso, I. (2018). Elkarrekintza didaktikoa eta album ilustratua hezkuntza literariorako giltzarri. Ezagutzak elkarrekin eraikitzen. *UZTARO* 106, 5-2. DOI 10.26876/uztaro.106.2018.1

Hoster, B., eta Lobato, M.J. (2007). Iniciación a la competencia literaria y artística a través del álbum ilustrado. *Lenguaje y textos*, 26, 119-134.

Vizcarra-Morales, M. T. (2007). *Garapen psikomotorra haur hezkuntzan (0-6 urte)*. Universidad del País Vasco, Servicio Editorial= Euskal Herriko Unibertsitatea, Argitalpen Zerbitzua.

Erreferentzia digitalak interesgarriak:

<https://educacionambiental26.com/competencia-ecosocial/>

<https://educacionecosocial.com/2020/06/05/competencia-ecosocial-que-por-que-y-para-que/> <https://link.springer.com/article/10.1007/s11625-011-0132-6>

https://web.unican.es/unidades/igualdad/SiteAssets/guia-de-recursos/responsabilidad-social-universitaria/EdS_ODS.pdf

<https://www.bizkaiatalent.eus/eu/objetivos-desarrollo-sostenible/>

<https://www.te-feccoo.es/2020/06/05/competencia-ecosocial-para-la-sostenibilidad/> <https://unesdoc.unesco.org/ark:/48223/pf0000252423>

7 ERANSKINAK

1. ERANSKINA: Lehen tutoretzarako. Liburu zerrenda eta behin behineko aukeraketa, prozeduraren hausnarketa.

1.1. ALBUM ILUSTRATUEN ZERRENDA:

Taldekide bakoitzak sartu dezala taula honetan bilatutako album ilustratuen hurrengo informazioa:

	IZENBURUA	IDAZLEA	URTEA	ARGITALETXEA	ERABILGARRITASUN DIDAKTIKOA	BILAKETA EGINDAKO IKASLEAREN IZEN ABIZENAK
0.	adib.: <i>La Ola</i>	<i>Suzy Lee</i>	<i>2008</i>	<i>Bárbara Fiore</i>		
1.						
2.						
3.						
4.						
5.						
6.						
7.						
8.						
9.						
10.						
11.						

12.						
13.						
14.						
15.						
16.						
17.						
18.						
19.						
20.						
21.						
22.						
23.						
24.						
25.						
26.						
27.						
28.						
29.						
30.						

31.						
32.						
33.						
34.						
35.						

1.2. BEHIN BEHINEKO ALBUM ILUSTRATUEN AUKERAKETA ZERRENDA:

Aurreko listatik eratorritako **bost** album ilustratu aukeratu ostean, sartu ezazue hurrengo informazioa taula honetan

IZENBURUA	AUKERAKETAREN JUSTIFIKAZIOA

1.3. BESTE TALDEARI BIDERATUTAKO GALDERAK

Beste talde batek sortutako album ilustratuen zerrenda behin irakurrita, idatzi ezazue talde honi zuzenduta egongo diren **bost galdera** taula honetan. Galderak liburuen aukeraketaren ingurukoak izango dira eta jasotako erantzunak taulan ere sartuko dira.

Tokatu zaizuen taldearen izena:

GALDERAK	ERANTZUNAK
<i>adib.: Zer lotura dute zuen ipuinak GIHeekin?</i>	

1.4. GALDEREN ERANTZUNETATIK ATERATAKO HAUSNARKETA

Hausnarketa 250-300 hitzekoa izango da.

Galdera lagungarriak:

-Zer ikasi duzue topaketa honetatik?

-Zer iruditu zaizue interesgarria egindako galderetatik?

-Nola lagundu dizue dinamika honek (liburuaren aukeraketan, justifikazioan, DALa ulertzen...)?

-Zein ipuina aukeratu duzue lanerako eta zergatik?

2. ERANSKINA: Hizkuntzaren Didaktikako saiorako. Ipuinaren aukeraketa eta justifikazioa (Marko teorikoa)

AZALPENA:

Irakasgaiak eskeintzen duen bi orduetan, hurrengoa egingo da:

- DAL taldekide bakoitza beste taldeetako klasekideekin batuko da. Ikasleen araberrako partaide kopurua egongo da talde berri hauetan (ausaz sortuko dira).
- **Album ilustratuaren aukeraketa eta justifikazioa (marko teorikoa)** izango da gai nagusia.
- DAL talde desberdinen partaideek beraien lanaren egoera/fasea partekatuko dute besteekin.
 - Justifikazio fasearen zein puntutan daude
 - Nola justifikatzen ari diren aukeraketa (zeintzuk ikuspegiak erabiltzen ari diren)
 - Zeintzuk arazoak izaten ari diren...
- Taldekide guztiek besteek esandakoa apuntatuko dute.
- Behin atal hau bukatuta, ikasleak beraien DAL taldera bueltatuko dira egat txostgen bat idatzi behar dute halako galderari erantzunez? Zer ikasi duzue beste taldeengandik eta zer partekatu duzue beste taldeekin? (200-300 hitz artean)
- Egunean bertan bidali behar dute talde ezberdinek txosten hau

Zer ikasi duzue beste taldeengandik eta zer partekatu duzue beste taldeekin? (200- 300 hitz artean)

3. ERANSKINA: Garapen Psikomotorreko saiorako. Proposamen didaktikoaren diseinua

AZALPENA:

Irakasgaiak eskeintzen duen bi orduetan, hurrengoa egingo da:

- DAL taldekide bakoitza beste taldeetako klasekideekin batuko da. Ikasleen arabera partaide kopurua egongo da talde berri hauetan (ausaz sortuko direnak).
- Album ilustratuetatik abiatutako **proposamen didaktikoaren diseinua** izango da gai nagusia.
- DAL talde desberdinen partaideek beraien lanaren egoera/fasea partekatuko dute besteekin.
 - Proposamen didaktikoaren diseinuko zein fasetan dauden
 - Zer egitea pentsatu duten (zein izango da abiapuntua edo albumetik berreskuratutako gaia)
 - Nola pentsatu dute irakasgaien edukiak jorratzea (diziplinartekotasuna kontuan izanda)
 - Zeintzuk arazoak izaten ari diren...
- Taldekide guztiek besteek esandakoa apuntatuko dute.
- Behin atal hau bukatuta, ikasleak beraien DAL taldera bueltatuko dira eta txosten bat idatzi behar dute halako galderari erantzunez? Zer ikasi duzue beste taldeengandik eta zer partekatu duzue beste taldeekin? (200-300 hitz artean)
- Egunean bertan bidali behar dute talde ezberdinek txosten hau

Behin atal hau bukatuta, ikasleak beraien DAL taldera bueltatuko dira hurrengo taula betetzeko asmoarekin:

Zer ikasi duzue beste taldeengandik eta zer partekatu duzue beste taldeekin? (200- 300 hitz artean)

4. ERANSKINA: Arte Plastikoak saiorako. Proposamen didaktikoaren diseinua eta aurkezpena

AZALPENA:

Irakasgaiak eskeintzen duen bi orduetan, hurrengo egingo da:

- DAL taldekide bakoitza beste taldeetako klasekideekin batuko da. Ikasleen arabera partaidea kopurua egongo da talde berri hauetan (ausaz sortuko direnak).
- Album ilustratuetatik abiatutako **proposamen didaktikoaren diseinua eta lanaren aurkezpena** izango da gai nagusia.
- DAL talde desberdinen partaideek beraien lanaren egoera/fasea partekatuko dute besteekin.
 - Proposamen didaktikoaren diseinuko zein fasean dauden
 - Zer egitea pentsatu duten (zein izango da abiapuntua edo albumetik berreskuratutako gaia)
 - Nola pentsatu dute irakasgaien edukiak jorratzea (diziplinartekotasuna kontuan izanda)
 - Nola eramango dute aurrera aurkezpena (estetikoki, ariketa praktikoak egingo duten...)
 - Zeintzuk arazoak izaten ari diren...
- Taldekide guztiek besteek esandakoa apuntatuko dute.
- Behin atal hau bukatuta, ikasleak beraien DAL taldera bueltatuko dira egat txosten bat idatzi behar dute halako galderari erantzunez? Zer ikasi duzue beste taldeengandik eta zer partekatu duzue beste taldeekin? (200-300 hitz artean)
- Egunean bertan bidali behar dute talde ezberdinek txosten hau

Behin atal hau bukatuta, ikasleak beraien DAL taldetara bueltatuko dira hurrengo taula betetzeko asmoarekin:

Zer ikasi duzue beste taldeengandik eta zer partekatu duzue beste taldeekin? (200-300 hitz artean)

5. ERANSKINA: Justifikaziorako autoebaluzio galderak

5.1. Modu egokian justifikatu da ipuinaren aukeraketa?

Galdera	Orria(k)/Paragrafoa(k)
Zergatik landuko du liburu hau? Zein ezaugarri egiten du egoki liburu hau? Zein beste ipuin baloratu ditugu eta zergatik utzi ditugu kanpoan?	
Zein da ipuina erabiltzearen helburua? Mezu edo ideia bereziren bat transmititzen al du?	
Zein ekarpen egiten du haurren garapenerako?	
Egokia al da moduloko hiru irakasgaiak lantzeko? Nola lotzen da irakasgai bakoitzaren eduki espezifikoekin?	
Nola egokitzen da taldearen beharretara?	
Zergatik uste duzue haurren adinarentzako egokia dela? Justifikatu	
Zein arazo egon daitezkeela aurreikusten duzu? Nola egingo diezue aurre arazo hauei?	
Zein jarduera edo ekintza didaktiko mota bururatzen zaizkizue lehen begi-kolpean?	

5.2. Idazkera akademikoa, informazio iturriak, aipamenak eta erreferentziak

Irizpidea	Inoiz ez/batzutan/beti
Idazkera formala eta egokia erabiltzen da	
Hiztegia aberatsa da eta gaiari lotutako terminoak erabiltzen dira	
Ortografia eta gramatika zuzena da	

<p>Erabilitako informazio iturriak fidagarriak dira: argitaratutako liburuak eta artikulak, adituek idatzitako weborriak edo blogak, instituzioen weborri ofizialak.</p>	
<p>Ideiak indartzeko aipamenak erabiltzen dira APA formatuan (parafraseartzen edo literalki erabiliz)</p>	
<p>Erreferentzien zerrenda 6. Edizioa jarraitzen du: ordenu alfabetikoz, artikulak, liburuak, liburu kapituluak bereizten dira...</p>	